

GARBERA AUZOKO ALDAKUNTZAK

Bixente BARANDIARAN

Orain berrogeita zortzi urte etorri nintzen Altza bailarara. Orduan bizi giñan zortzi baserritar. Barrenean Larratxo bizi ziran gurasoak bi semerekin. Gaztena lenengo illa, gero gurasoak, azkenik seme zarrena bere emaztea utzita. Jaunak berekin ditzala.

Bestea Paris baserria. Or bizi ziran gurasoak, iru seme eta alabarekin. Senar emazteak il ziran. Gazteak aldendu ziran etxetik. Gero baserri orren jabeak bere billobari utzi zion baserria. Orrek lenengo zarra bota eta billa eder bat egin du. Ez du ganadu bearrik, lanean kanpoan senar emazteak. Bi alaba eskolan.

Gero Bustin Txulo urrengoa. An bizi ziran Migel eta Julita beren iru alaba eta semearekin. Laurak esposatu ziran eta gurasoak beren nagusiak iru baserri zeuzkan alkarren gertu danak sail batean eta Aurrezki Kutxari saldu zizkion. Maistarrari zerbait ordainduta Migel eta Julita Iruna jun ziran alabarengana, ganaduak salduta.

Beste bi baserri saldu zituanak Garbera Goia zuten izena. Batean bizi ziran Joxe Ramon eta Maria, iru alaba eta bi semerekin. Aita baserrian il zan. Ama alabarengana jun zan. Aldendu ziran danak. Beste etxean Maria bizi zan bere seme batekin. Semea il ta bakarrik gelditu zan. Amak orduan Ernanin zeukan alaba ekarri zuan bere pameliarekin, aita, bi seme eta alaba. Urte batzuek bertan egin zituzten. Gero etxea saldu ziotenean emandakoa artu eta alde egin bear izan zuten. Altzan etxe bizitza bat erosita beren alaba eta suia bizi dira.



Gu bi bizilagun gelditu giñan bakarrik. Garbera Bea baserrian berrogeita zazpi urte egin giñutzen alkarren ondoan. Besteko senar emazteak iru alaba dituzte eta irurak kanpora ezkonduak. Ikusi zutenean senar emazteak bakarrik ezin zirala bizi bigarren alabarengana aldatu ziran. Eta baserria saldu zioten Altzako ezagun bati.

Orain bi baserritar gelditzen gera bakarrik. Eta biok ganadurik gabe. Nik ere ikusi det besteak zer egin duan. Bide berdiña dator neretzako. Larogei urte gertu ezin dedalako utzi baño naiago det zerbait egiteko moduan nagola uztea. Orain artean ba det zerbait egiña. Zer pensatzen detan bertsoz adierazi nai det. Orra asera.

Telebistai begira
gauen ordu bete
goizean lotan lasai
deskansatu arte
lanerako presarik
ez bait daukat bate
zerbait egiten badet
neretzako kalte.

Bederatziak aldera
jeiki ta gosaldu
amaikak jotzerako
Kontxara azaldu
ordubietan etxera
orduan bazkaldu
siestako denborarik
ez det nai galdu.

Naiko lo egiten
pozez esnatu ta
nora joango naizen
ezin pentsatuta
lanean asi beariko
etxen geratuta
mendira joango naiz
makila artuta.

Gaurko eguna beintzat
pasatu det jator
biarko goiza ere
belaxe ba dator
gorputzari laguntzea
nola daukagun zor
eriotzetikan ez da
libratuko iñor.

Sasoiko urte aiek
dauzkat gogoan
gu ere ibiliak gera
askoren moduan
amaika sagardotegi
bisitau genduan
bertsoetan ere errez
egiten zan orduan.

Bakailauakin tortilla
guretzat lenengo
kostilla edo txuleta
ziguten emango
sagardoakin gaiñetik
bustitzen zan ondo
kantatzeko gogoare
nola etzan izango.

Lagunak pentsatzean
berriro joaterik
ni ere zai negon beti
deituko ote dit
buelakoan etxera
barrena beterik
ala ere etzigun
egiten kalterik.

Amaika ordu goxo
pasatzen genduan
tragoak ondoan
kupela ondoan
denbora errez pasatu
oi zan orduan
orrela ibili giñan
gu urte mordoan.

Garaiak pasa dira
lagun arterako
esan det ez naizela
berriz aterako
ikusirikan zer onik
eiten ez didalako
parrandak utzi ditut
bein betirako.

Gustora egiten det
eguneko jira
pesta lekun batera
igual perira
oraindik ain gogozko
aiek netzat dira
bañan arratserako
garaiz erretira.

Orain jarrita nago
ibiltzea zuzen
naiz gazte denboran
olakoa ez izen
nere buruarekin
jarririk pentsatzen
sendagileik onena
neu ote naizen.

Sendagileak diona
ondartza joateko
oinak ondo bustiaz
bueltak emateko
nere barizentzako
ez dala kalteko
osasunari beintzat
kaso egiteko.

Jakiñik au dedala
komeni zait dana
ontan saiatu bearko
beintzat al dana
osasuna nola degun
Jainkoak emana
itxaropena daukat
beti beregana.

Iritzi ori nik iñoiz
ez bait det utzitzen
bere laguntzarik gabe
ez degu luzitzen
len genduzkan kemen aik
dijoaz gutxitzen
eskatzen dizut Jauna
lagundu bizitzen.